

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 394/2026 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa. Onespena ematea nekazaritza ekoizleek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatzeko eta ordaintzeko prozedurari

Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuak, 46. artikuluan, aparteko eta aldi baterako laguntza bat onesten du Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.1 artikulua 1.4 epigrafeko tasan tributatzen duen gasolioa nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erregai gisa erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoentzat edo nortasunik gabeko erakundeentzat, Arabako araudiaren barruan, Zerga Bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 ter artikuluan jasotakoaren arabera. Halaber, laguntza hori eskatzeko eta emateko prozedura arautzen du.

Prozedurari dagokionez, bat etorri Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko aipatutako 7/2026 Errege Lege Dekretuak ezarritakoarekin, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 ter artikuluan eta dekretua garatzeko araudian jasotako prozedura aplikatuko da laguntza kudeatu eta ordaintzeko, eta nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioaren zati bat itzultzeko izapidetutako prozedurarekin batera izapidetuko da.

Ondoren, Europako Batzordeak, SA.122724 (2026/N) Erabakiaren bidez, barne merkatuarekin bateragarritzat jo du nekazaritza ekoizleek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzeko aparteko laguntza, eta ekainaren 5eko APA/568/2026 Agindua bidez garatu da haren araubidea. Hortaz, foru agindu hau araubide horri egokitu behar zaio.

Horren ondorioz, foru agindu honen bidez arautzen da nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioagatik hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko eskubidea duten nekazaritza ekoizleek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatzeko eta ordaintzeko prozedura, hura kudeatzea eta itzultzea Arabako Foru Aldundiari dagokionean, 7/2026 Errege Lege Dekretuan eta hura garatzeko araudian ezarritako araubide juridikoaren arabera.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Foru agindu honen xedea da arautzea nekazaritzako ekoizleek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza kudeatzeko eta ordaintzeko prozedura, hura kudeatzea eta itzultzea Arabako Foru Aldundiari dagokionean. Laguntza hori martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan jasota dago (7/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 20koa, Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duena).

2. Zehazki, aurreko paragrafoan aipatzen den laguntzaren onuradun izango dira Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.1 artikulua 1.4 epigrafeko tasan tributatzen duen gasolioa nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erregai gisa

erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek edo nortasunik gabeko erakundeek ordaindutako edo jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskubidea aitortzen zaien pertsona edo erakundeak, Ekialde Ertainean Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onartzen duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua. Laguntza kudeatzea eta ordaintzea

1. Laguntza kudeatu eta ordaintzeko, Zerga Bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 ter artikuluan eta dekretua garatzeko araudian jasotako prozedura aplikatuko da.

Laguntza eskatutzat joko da nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioari dagokion hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko eskaera aurkeztzen denean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 15eko 207/2012 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera. Agindu horren bidez, arautu egiten da nekazari eta abeltzainei haiek erositako gasolioagatik ordaindutako hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten zati bat itzultzea.

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da, onuradunak eskaeran adierazitako kontura.

2. Eskaera aurkezteko epea amaitu eta sei hilabete igaro ondoren ez bada dirulaguntza eman ez eta ordaindu, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu ahal izango da.

Presuntziozko ezeste horren aurka berraztertzeko errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutako moduan.

3. Artikulu honetan ezarritako laguntzak bateragarriak dira nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioagatik hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzearekin (otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 52 ter artikuluan araututa dago).

3. artikulua. Estatuaren laguntzen araubidea

Foru agindu honetan araututako laguntzen kudeaketa eta ordainketa martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan eta ekainaren 5eko APA/568/2026 Aginduan ezarritako estatu laguntzen araubidera egokituko dira. Agindu hori eman zen Europako Batzordearen SA.122724 (2026/N) Erabakiaren bidez laguntza barne merkatuarekin bateragarria dela adierazi ondoren.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean sartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 30a

*Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun,
Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru diputatua*
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun Zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA